
SPOT CLEANER

KONPROBAZIO MAKINA

Memoria, aurrekontuak eta planoak

UNAI ZUBIRIA GARCIANDIA

Vitoria Gasteiz-ko ingeniari-tza eskola

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

1. AURKIBIDEA

1.	AURKIBIDEA	2
2.	ILUSTRAZIO TAULA.....	3
3.	TAULEN TAULA	5
4.	PROIEKTUAREN AURKEZPENA	6
4.1.	SARRERA	6
4.2.	BEZEROAREN DESKRIBAPENA	7
4.3.	SALTZAILEAREN DESKRIBAPENA	8
4.4.	HELBURUA.....	9
4.4.1.	HELBURU NAGUSIA	9
4.4.2.	AZPI HELBURUA.....	10
5.	LEGE INGURUA	11
6.	STATE OF THE ART	15
6.1.	PATENTEEN AZTERKETA.....	18
7.	PROIEKTUAREN GARAPENA.....	20
7.1.	ATAL ELEKTRIKO / ELEKTRONIKOA.....	22
7.2.	ATAL PNEUMATIKOA	39
7.3.	ATAL MEKANIKOA	47
7.4.	PROGRAMAZIOA	49
8.	DISEINUA	59
8.1.	KONTROL POSTUA	60
8.2.	BR1 ARMAIRU NAGUSIA	62
8.3.	BR2 AGINTEDUN ARMAIRUA	63
8.4.	GOI-TENTSIOKO EGIAZTAGAILUA	64
9.	FUNTZIONALITATEA.....	65
9.1.	PROBEN FUNTZIONAMENDUA.....	65
9.2.	AKINAREN FUNTZIONAMENDUA	70
10.	AURREKONTUA.....	72
11.	ONDORIOAK ETA HOBEKUNTZAK	75
12.	BIBLIOGRAFIA	76
13.	ERANSKINAK.....	77
13.1.	ESKEMA ELEKTRIKOAK.....	77
13.2.	PROGRAMAZIOA.....	105
13.3.	ERABILTZEKO MANUALA	178

2. ILUSTRAZIO TAULA

Ilustrazioa 1 - SDA Factory	7
Ilustrazioa 2 - Ramos Industrial	8
Ilustrazioa 3 - Spot Cleaner	20
Ilustrazioa 4 - Spot Cleaner Alimentazioa	20
Ilustrazioa 5 - Koadro elektrikoa	23
Ilustrazioa 6 - Etengailu ebakitzaila	23
Ilustrazioa 7 - Diferentziala	24
Ilustrazioa 8 - Magnetotermikoa.....	25
Ilustrazioa 9 - Kontaktorea	26
Ilustrazioa 10 - Transformadorea	27
Ilustrazioa 11 - Korrante transformadorea	28
Ilustrazioa 12 - Korrante transduktorea.....	29
Ilustrazioa 13 - Tentsio isolatzailea	30
Ilustrazioa 14 - Presio sentsorea	31
Ilustrazioa 15 - Zilindro detektagailua.....	32
Ilustrazioa 16 - 24V Elikatze iturria.....	33
Ilustrazioa 17 – EB Ilustrazioa 18 - UK Ilustrazioa 19 – EE.UU	34
Ilustrazioa 20 - Botoi-ontzia	35
Ilustrazioa 21 - Pilotu gorputz argitsua Ilustrazioa 22 - Botoi argitsua.....	36
Ilustrazioa 23 - Emergentsia etengailua	36
Ilustrazioa 24 - Segurtasun-hesi optikoak	37
Ilustrazioa 25 - Erdi tentsioko kablea	38
Ilustrazioa 26 - Aire filtro-erregulagailua	40
Ilustrazioa 27 - Isilgailu pneumatikoa.....	41
Ilustrazioa 28 - Hondar-presioa segurtasun-katigamenduarekin ebakutzeko 3 bideko balbula	42
Ilustrazioa 29 – Elektrobalbula	43
Ilustrazioa 30 - Emari erreguladore pneumatikoa	43
Ilustrazioa 31 – Errakorea	44
Ilustrazioa 32 – Zilindroak	45
Ilustrazioa 33 - Hodi pneumatikoa	46
Ilustrazioa 34 - Aluminiozko perfila.....	47
Ilustrazioa 35 - Arteka profilaturako mailu azkoinak	48
Ilustrazioa 36 - Metakrilatozko pantaila.....	48
Ilustrazioa 37 - PLC CP1E-N40DR-D	49
Ilustrazioa 39 - 20EDR1	52
Ilustrazioa 41 - AD041	53
Ilustrazioa 43 - NQ5-SQ000-B.....	54
Ilustrazioa 44 - Komunikazio Konfigurazioa	55
Ilustrazioa 48 - Segurtasun modulua.....	57
Ilustrazioa 49 - Makinaren diseinua	59
Ilustrazioa 50 - Kontrol Postuaren diseinua	61
Ilustrazioa 51 - BR1 kanpotik.....	62



Ilustrazioa 52 - BR1 barrutik.....	62
Ilustrazioa 53 - BR2.....	63
Ilustrazioa 54 - Goi-tentsioko egiaztagailua UH28C.....	64
Ilustrazioa 55 - Eskema orokorra.....	65

3. TAULEN TAULA

Taula 1 – State of the art.....	17
Taula 2 - Patenteen azterketa	18
Taula 3 - Proben nondik norakoak	21
Taula 4 - CP1E Ezaugarriak	51
Taula 5 - 20EDR1 Ezaugarriak.....	52
Taula 6 - AD041 Ezaugarriak.....	53
Taula 7 - Sarrera digitalak.....	56
Taula 8 - Irteera digitalak	56
Taula 9 - Sarrera analogikoak	56
Taula 10 - I. klaseko testa (EU,UK)	66
Taula 11 - I. klaseko testa (EE.UU).....	67
Taula 12 - II. klaseko testa (EU,UK)	68
Taula 13 - II. klaseko testa (EE.UU).....	69

4. PROIEKTUAREN AURKEZPENA

4.1. SARRERA

SDA Factory, etxetresna elektrikoak fabrikatzen dituen enpresa gasteiztarra da. Spot Cleaner izenez ezagunak izango dira fabrikatzen hasiko diren aspiradorak. Hauek, merkatura atera baino lehen zenbait proba elektriko pasa behar dituzte, proba hauek aurrera eraman ahal izateko enpresa gasteiztarrek Ramos Industrial enpresarekin kontaktuan jarri da, proba hauek burutuko dituen makina bat diseinatu eta fabrikatu dezan.

4.2. BEZEROAREN DESKRIBAPENA

SDA Factory Vitoria S.L. sozietateak (IFZ B01569292) Gasteizko Vitorialanda 14 (01010) kalean du egoitza soziala, Arabar probintzian, Euskal Herrian.

Etxetresnak fabrikatu eta saltzen dituen enpresa da, bere jarduera plantxak, plantxatzeko zentroak, kafe makinak, eta airea tratatzeko aparatuak fabrikatzea eta saltzea da. Enpresa inportatzailea eta esportatzailea da. Enpresa Merkataritza erregistroan sozietate mugatu gisa inskribatuta dago, CNAE 2009: 2751, 'Etxetresnen fabrikazioa'. (elEconomista.es, s.f.)



Ilustrazioa 1 - SDA Factory

4.3. SALTZAILEAREN DESKRIBAPENA

ELECTRICIDAD RAMOS y CIA S.L. enpresak instalazio elektrikoak muntatzeko eta mantentzeko industria-jardueraz arduratzen da. Hornidura teknikoaz gain, proiektuak eta obra-ziurtagiriak egiteko ingeniaritza saila du.

Gaur egungo jarduera, funtsean, honako arlo hauetan garatzen da: Goi-tentsioko eta behe-tentsioko sareak, transformazio-zentroak, argi publikoak, telebista-errepikagailuak. Indarrezko industria-instalazioak, argiztapenak, automatizazioak eta prozesuen kontrola automata programagarriekin eta SCADA sistemekin. Datuen eta komunikazioen sareak. Merkataritza eta bulego eraikinen instalazioak. Goi-tentsioko eta behe-tentsioko edozein instalazio elektriko.

ELECTRICIDAD RAMOS y CIA S.L. enpresak bere bezeroei eskaintzen dizkien gainerako jarduerak indartzen dituen ingeniaritza estudio bat du. Horrela, zerbitzu gehiago eta hobeak emateko ahaleginean, bere lanen alderdi guztiei aurre egin diezaieke, izaera integralarekin. Ingeniaritza saila bere bezeroen esku jartzen du, etekina atera dezaketen beste zerbitzu bat bezala. Eskaintzen diren ingeniaritza-zerbitzuen artean honako hauek azpimarra ditzakegu:

- Proiektuak aurrera eraman eta idaztea.
- Legeztatzeak.
- Obra-zuzendaritza
- Aholkularitza.
- Izapideak erakunde publikoekin eta konpainia hornitzaileekin.



Ilustrazioa 2 - Ramos Industrial

4.4. HELBURUA

4.4.1. HELBURU NAGUSIA

Proiektu honen helburu nagusia SDA Factory enpresak fabrikatuko duen Spot Cleaner xurgatzailearen froga elektrikoak egingo dituen makina baten diseinua eta fabrikazioa gauzatzea da.

Horretarako, hau da bezeroak bidali duen informazioa:

Xurgatzaileak egiaztatuko dituen kontrol postuak hurrengo probak burutu beharko ditu:

- Lurraren erresistentzia testa
- Zurruntasun dielektrikoaren testa
- Potentzia proba
- Huts presio testa

Horretarako, hau da bezeroak erraztu duen informazioa:

- Zurruntasun dielektriko proba egiten duen hardwarea dute, fabrikatuko den makinan akoplatuko da.
- Makinaren diseinurako erabili gabe dituzten Omron PLC, HMI pantaila edota zenbait konponente elektronikoa erabiliko dira.
- Makinaren kontrola eta parametrizazioa pantaila baten bitartez egin behar da.
- Xurgatzaileak probak pasa eta egokiak direnean “puntuoi” batek markatuko ditu.
- Bi aspiradora mota konprobatuko dira, “boiler”dunak eta “boiler” gabeak.

Makina honek etorkizunean erraztasunak emango ditu markaren beste modelo edo produktueta moldatzeko. SDA-Factory-ren modelo guztiak merkatura atera baino lehen prestazio elektriko oso antzekoak eskaini beharko dituztenez, kontrol sistema hau beste modeloetara inplementatzea ez da zaila izango.

4.4.2. AZPI HELBURUA

Diseinuarekin erlazionatutako helburuez gain beste helburu batzuk daude, ELECTRICIDAD RAMOS y CIA S.L.-ren garapenarekin erlazionatuak gehienbat.

ELECTRICIDAD RAMOS y CIA S.L. proiektu honekin duen helburu nagusia bezeroaren nahiak betetzea da eta emaitza on bat lortzea. Esan bezala bezeroak hainbat produktu ezberdin fabrikatzen dituen etorkizunerako garrantzitsua izan daiteke, proiektu honek beste proiektu batzuk ekar ditzakelako. Enpresarentzat garrantzitsua da etorkizunerako lan gehiago suposatuz dezakelako.

Makina honek etorkizunean erraztasunak emango ditu markaren beste modelo edo produktuetara moldatzeko. SDA-Factory-ren modelo guztiak merkatura atera baino lehen prestazio elektriko oso antzekoak eskaini beharko dituztenez, kontrol sistema hau beste modeloetara inplementatzea ez da zaila izango.

5. LEGE INGURUA

Proiektua egiteko, hainbat dira kontuan hartu diren lege-arloak.

Edozein makina lehen aldiz merkatuan edo Europar Batasunean sartzeko eta, beraz, Espainian zerbitzuan jartzeko, industria-produktuek CE marka izan behar dute. Dagokion Europar batasuneko adostasun-adierazpena izan behar du, dagokion araudian (Zuzentarauan edo Erregelamenduan) adierazitakoaren arabera.

Legeria harmonizatuaren barruan, berariazko legeria dago produktu mota zehatzetarako, hainbat produktu motari aplikatu dakiekeen zeharkako legeria. Beraz, produktu mota bakoitzari zuzentarau edo erregelamendu espezifiko bat baino gehiago aplikatu dakioke haren ezaugarrien arabera.

Beraz, fabrikatzaileak, produktuaren ezaugarrien arabera, fabrikatzen duen produktuari aplikatzen zaion berariazko eta zeharkako araudia ezagutu behar du. Zenbait zuzentarau edo erregelamendu aplikatu behar badira ere, produktuak CE marka bakarra izan beharko du, eta Europar Batasuneko adostasun-adierazpen bakarria egin beharko da. (ADMINISTRACION GOBIERNO DE ESPAÑA, s.f.)

Fabrikatu den makinari hurrengo araudia aplikatuko zaio:

2006/42/CE ZUZENTARUA

Makinatzat hartzen da aplikazio jakin bati lotutako atal edo osagaien multzoa. Horietako bat, gutxienez, mugikorra da. Gainera, giza edo animalia-indarra ez den eragintza-sistema bat izan behar du.

Makinaren kontzeptua ulertu ondoren, azaldu behar da industria-makinatzat hartzen diren produktuen CE marka 2006/42/CE zuzentaruak arautzen duela. 2006/42/CE zuzentaruaren helburua da Europako merkatu bakarrean askatasunez zirkulatzea erraztea, eta, aldi berean, langileen eta kontsumitzaileen segurtasunerako eta osasunerako babes-maila handia bermatzea.

Zuzentaruak produktuak merkatuan jarri aurretik seguruak direla bermatzeko fabrikatzaileek bete beharreko baldintzak ezartzen ditu:

- Produktua nola fabrikatu den, zer material erabili diren, zer segurtasun-baldintza erabili diren, erabilera-arriskuak minimizatzeke zer irtenbide tekniko hartu diren eta zer kalkulu tekniko egin diren azaltzea eta erakunde eskudunari beharrezko informazio guztia eskaintzea.
- Fabrikatzailea edo ordezkaria da araudi honek makinatzat edo kuasi-makinatzat hartzen den produktu bat diseinatzen edo fabrikatzen duena, eta hura izango da makinarekiko erantzulea.

- 2006/42/CE zuzentarauan jasotako informazioa aplikatzen zaie makinei, ekipo trukagarriei, segurtasun-osagaiei, jasotzeko osagarriei, kateei, kable eta zingilei, transmisio mekanikoko gailu mugigarriei eta kuasi makinatzat jotzen diren produktuei.
- Espediente teknikoak egiaztatu behar du ekipoa bat datorrela aipatutako araudiaren baldintzekin, eta bete egiten dituela makinaren CE xedeak. Ebaluazio horretarako beharrezkoa den neurrian, makinaren diseinuari, fabrikazioari eta funtzionamenduari buruzkoa izan beharko du.
- Makina baten fabrikatzaileak edo haren ordezkari baimenduak arriskuen ebaluazioa egiten dela bermatu behar du, makinari aplikatzen zaizkion segurtasun- eta osasun-baldintzak argitzeko. Azken batean, arriskuen ebaluazioaren emaitzak kontuan hartuta diseinatu eta fabrikatu beharko da ekipoa.
- Gainera, fabrikatzaile orok behar diren azterketa eta saiakuntzak egin beharko ditu osagaiak edo makina bere osotasunean muntatu eta segurtasun-baldintzetan zerbitzuan jar daitekeen zehazteko.

Beraz, makina bat merkaturatu aurretik, fabrikatzaile orok segurtasun- eta osasun-arloko funtsezko baldintzak betetzen dituela ziurtatu behar du, espediente tekniko bat egin behar du, makina erabiltzeko jarraibideak eman behar ditu, egokitasuna ebaluatzeko prozedurak gauzatu behar ditu, adostasun-adierazpena idatzi behar du eta makinan CE marka modu ikusgarri eta irakurgarrian jarri behar du. (OMOLOGIC, s.f.)

2014/35/EB ZUZENTARUA

Behe-tentsioko zuzentarauak osagai elektriko eta elektronikoak dituzten produktu ugari eta askotarikoei eragiten die. Bere funtzio nagusia produktu batek bere funtzionamendurako erabili behar dituen tentsio-mugak kontrolatzea da, izaki bizidunen osasunean kalterik eragin ez dezan.

Behe-tentsioko zuzentaraia Europar Batasuneko merkaturatutako den material elektrikoari aplikatzen zaio. Material hori tentsio-muga jakin batzuekin erabiliko da, bertan fabrikatua edo bertan merkaturatutako den hirugarren herrialde batekoa izan daiteke. Behe-tentsioko zuzentarauaren helburua merkaturatutako material elektrikoak segurtasun-baldintzak betetzen dituela bermatzea da, pertsonen, etxeko animalien eta ondasunen osasunaren eta segurtasunaren babes-maila handia izateko baita barne-merkatuaren funtzionamendu egokia bermatzeko.

Produktu batek zuzentarau hori bete behar du, dela osasun-produktu bat, dela gailu elektriko bat, dela jostailu elektroniko bat, CE marka nahitaezkoa da merkaturatzeko. 2014/35/EB Behe Tentsioko Zuzentaraia honako tentsio hauen nominalarekin erabiltzeko material elektrikoari aplikatzen zaio:

- 50 eta 1000 V korrante alfernoan
- 75 eta 1500 V korrante zuzenean

Produktuari buruzko zuzentarau hori aplikatzeko eta CE marka lortzeko, ez da jakinarazitako erakunde baten esku-hartzerik beharko, baina produktuak laborategian saiakuntzak egin beharko ditu hori betetzen dela egiaztatzeko.

Baldintza orokorrak:

- Material elektrikoa segurtasunez eta helburuaren arabera erabiltzen dela ziurtatu behar da. Horretarako, produktuaren funtsezko ezaugarri guztiak material elektrikoan eta/edo harekin batera doan dokumentuan agertu behar dira.
- Material elektrikoa eta bere osagaiak muntaia eta konexio seguru eta egokiak ahalbidetzeko moduan fabrikatuko dira.
- Pertsonak eta etxeko animaliek behar bezala babestuta egon behar dute zuzeneko edo zeharkako kontaktuak eragiten dituen zuzeneko edo zeharkako kalteen aurka.
- Baldintza mekanikoei erantzuteko prest egon behar dute.
- Eragin ez-mekanikoei aurre egin behar diete espero diren ingurumen-baldintzetan. (OMOLOGIC, s.f.)

2004/22/CE ZUZENTARUA

2004/22/CE Zuzentaraua Europar Batasuneko Neurketa Tresnen Zuzentarauari (MID, ingelesezko siglen arabera) buruzkoa da. Zuzentarau horrek Europar Batasunaren lurraldean merkataritza-transakzioetan erabiltzen diren neurketa-tresnak fabrikatzeko, merkaturatzeko eta egiaztatzeko baldintzak ezartzen ditu.

Neurketa Tresnen zuzentaraua tresna sorta zabal bati aplikatzen zaio, hala nola, ur-neurgailuei, elektrizitate-neurgailuei, balantzei edo gas-neurgailuei. Helburu nagusia tresna horien zehaztasuna eta fidagarritasuna bermatzea da, kontsumitzaileen interesak babesteko eta bidezko merkataritza sustatzeko.

Zuzentaruak ezartzen ditu neurketa-tresnek bete beharreko baldintza tekniko eta metrologikoak, bai eta fabrikatzaileek beren produktuek ezarritako estandarrak betetzen dituztela ziurtatzeko jarraitu beharreko egokitasuna ebaluatzeko prozedurak ere. Halaber, izendatutako egiaztapen-erakundeen eta neurketa-tresnen erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak ezartzen ditu.

2014/30/EB ZUZENTARUA





2014/30/EB Zuzentaraua, bateragarritasun elektromagnetikoari buruzko zuzentaraua ere esaten zaiona, tresna edo instalazio finko elektriko edo elektronikoei eragiten dien ikuspegi berriko zuzentaraua da, eta produktu elektriko edo elektronikoen guztiak haien artean elektromagnetikoki bateragarriak direla bermatzea du helburu. 2016ko apirilaren 20tik da aplikagarria, eta aurreko 2004/108/CE Zuzentaraua ordeztzen du, ordura arte aplikatzen zena.

Bateragarritasun Elektromagnetikoari buruzko zuzentarauaren helburua da ekipo eta sistema elektriko eta elektronikoek interferentzia elektromagnetiko kaltegarriak eta interferentzia horiekiko immunerik eragiten ez dutela bermatzea da. Hori garrantzitsua da ekipoen eta sistemen funtzionamendu segurua eta arazorik gabea bermatzeko, bai eta gertuko beste ekipo eta sistema batzuetan gerta daitezkeen asaldurak saihesteko ere.


Zuzentarauak ezartzen du zer baldintza bete behar dituzten fabrikatzaileek beren produktuak bateragarritasun elektromagnetikoko estandarrekin bat datoze la ziurtatzeko. Horren barruan sartzen da probak eta ebaluazioak egitea, ekipoen eta sistemen egokitasuna egiaztatzeke, neurri teknikoak aplikatzeko eta etiketatze egokia egiteko. Gainera, zuzentarauak betebeharrak ezartzen dizkie ekipo eta sistemen inportatzaile eta banatzaileei adostasuna egiaztatzeari dagokionez, merkatuan sartu aurretik.

6. STATE OF THE ART

Proiektua hasi baino lehen, azken teknologien azterketa bat egin da. Beharren arabera, produktu desberdinak aukeratzeko funtzionamendu optimo bat bermatzeko, eta proiektua aurrera eramatea posiblea ote den jakiteko.

FAMILIA	PRODUKTUA	ARGAZKIA	EZAUGARRIAK	PREZIOA	APLIKAZIOAK	FABRIKATZAILEA
Korrante tranformadorea	TC6 400/5A, Korrante tranformadorea profil estua, pletina 30x15 mm		Neurketa-tartea (A): 400/5 Sarrera korrantea: 400 A Transformadore mota: Nukleo itxia	24,20 €	Korrante nominal bat baxuenera bihurtzea, ekipo batek neurtu ahal izateko. Transformadoreak instalatu ahal izateko hornidura elektrikoa gelditzea posible den instalazioetan.	CIRCUITOR
	Korrante tranformadorea PACT MCR-V2-3015-60-100-5A-1		Irteera-korrantea: 5 A Energia-maiztasuna: 2.5 VA	41,17 €	Korrante nominal bat baxuenera bihurtzea, ekipo batek neurtu ahal izateko.	PHOENIX CONTACT
Presio sentsorea	ISE30A, Presio positiborako doitasun handiko 2 presostato kolore digitalen adierazlea		Kopia erabilgarriaren funtzioa. Aurreko ZSE/ISE30 seriean baino irteera-aukera gehiago. Finkatutako balioa aztertze aukera, nahiz eta teklatura blokeatu. Kode sekretua doitzeko funtzioa. Espazioa aurrezte. 3 urratsetan doitzea. 4 digituko display. Berehalako konexio ordezkarriak. Funtzio gehigarriak.	115,81€	fluido orokorren presioa neurtzea eta irteera-seinale analogiko bat ematea	SMC
	PAC50-BGC PAC50 PRESSURE SENSOR		Neurketa tartea: -1 bar... 1 bar Prozesuaren temperatura: 0 ° C... +60 ° C Seinale-irteera analogikoa eta karga ohmiko hautazkoa, 4 mA... 20 mA/0 V -10 V. karga konektatuaren Detekzio automatikoa, edo programagarria Irteera seinaleak alderantzizatu daitezke: 20 mA... 4 mA/10 V... 0 V	170,50€	SICK PAC50 presio-etengailuak sistemaren informazio garrantzitsuen ikuspegi orokor irakurterra ematen du, bi koloretako display argi bat erabiliz. Programatzea erraza da, beraz, abiaraztea azkarra eta erraza da. PAC50ak 2	SICK

					komutazio-irteera eta irteera analogiko gehigarri bat eskaintzen ditu karkasa erresistente batean.	
Zilindro konpaktuak	CDQ2A16-10DZ		Diametroa: 16 Jarduketa mota: Efektu bikoitza Kimu mota: Kimu sinplea Karrera: Estandarra Zilindro-lasterketa: 10 mm	60,0 9€	DQ2A16-10DZ modelo-zenbaki bat da SMC Corporationek fabrikatutako zilindro pneumatiko mota zehatz baterako. Aire konprimatua energia-iturri gisa erabiliz mugimendu linealaren kontrol zehatz eta fidagarria emateko diseinatuta daude. Espazio mugatua dagoen aplikazioetan erabiltzen da.	SMC
	ADN-25-15-A-P-A		lbilbidea 15 mm 25 mm-ko kalibrea Ekintza bikoitza ADN fabrikatzailearen seriea Luzera 59.5mm	58.9 7€	Ekipo txikiagoak eta, aldi berean, potentzia handiagoa: zilindro trinkoekin ADN-S oreka hori lortzen du. Zilindro oso txiki eta arinak errendimendu bikaina eskaintzen du mugimendu txikiekin. Pieza baten tamaina txikiko gorputza arduratzen da horretaz.	FESTO
	Serie C85		ISO 6432 eta CETOP RP52Prekin bat dator Diametroak (mm): 8, 10, 12, 16, 20, 25 300 mm-rainoko lasterketa estandarrak Detektagailu magnetikoa muntatzeko aukera.	56,5 7€	CD85 seriea SMC-ek fabrikatutako zilindro pneumatiko trinkoak eta ekintza bikoitzekoak dira. Zilindro horiek errendimendu fidagarria eta eragiketa leuna eskaintzeko diseinatuta daude, askotariko industria-aplikazioetan.	SMC
Zilindro konpaktuak giekin	CDU20-30D		Muntatzeko malgutasun handiagoa lortzen du Finkapenik gabeko zilindroaren gorputza eta zuzeneko muntaketarako	79,1 8€	Azalera anitzeko gorputz angeluzuzena, zuzenean muntatuta, Euskarriek	SMC

			<p>hainbat azalera ditu. Aurreztu lekua Zilindro angeluzuzeneko gorputza, neurri txikikoa baldintzetara egokitzen da Diametroak (mm): 6, 10, 16, 20, 25, 32 100 mm-rainoko lasterketak Detektagailu magnetikoa muntatzeko aukera Muntaia zuzena hainbat gainazaletan.</p>		<p>muntaketa-azaleraren askatasuna ahalbidetzen dute. Horri esker, Ekipoentzako lekua aurrezten dute.</p>	
			<p>Gutxieneko espazio-beharra Muntaketa azkarra Airearen konexio aldakorra konprimatua Finkatzeko hainbat aukera 400 mm-rainoko lasterketak dituen eragingailua Azken posizioen doikuntza zehatza Moteltze pneumatikoarekin eta EAP erregulagarriarekin Motelgailu progresibo auto erregulagarriak</p>	305€	<p>Gida zehatza eta unean-unean xurgapen handikoa, aldi berean eraikuntza trinko eta sendo batekin. DFM zilindro gidatua egokia da eusteko, goratzeko edo gelditzeko. Eragingailua eta gidaritza gorputz berean ditu. Bolak irristatzeko edo errodatzeko gidak ditu Finkatzeko eta muntatzeko aukera ugari eskaintzen ditu. Aplikazio espezifikoetarako egokitzeko aldaera ugari eskaintzen ditu</p>	FESTO

Taula 1 – State of the art

(RS, s.f.)

State of the Art guztia ikusi eta aztertuta, proiektua garatu ahal izateko teknologia existitzen dela eta merkatua erabilgarri dagoela baieztatu da. Beraz, ez da teknologia aldetik arazorik egon kontrol postua garatzerakoan.

6.1. PATENTEEN AZTERKETA

Patenteen azterketa proiektuak barneratzen dituen gaitan oinarrituz egin da: Lurraren erresistentzia, zurruntasun dielektrikoa, potentzia eta huts presioa neurtzen duten aparatuen bilaketak eginez.

Taula 2 - Patenteen azterketa


Identifikazio zenbakia	Izena	Urtea	Fabrikantea
ES2813127A1	DEVICE FOR MEASURING LEAK CURRENT AND DIELECTRIC RIGIDITY IN CABLES	2021	EMDEP 2 S L [ES] + LEGAZ NIEVAS JORDI
JP2018205064A	DIELECTRIC CHARACTERISTICS MEASURING JIG, DIELECTRIC CHARACTERISTICS MEASURING DEVICE, AND DIELECTRIC CHARACTERISTICS MEASURING METHOD	2018	S B RES CO LTD; SUMITOMO BAKELITE CO + UMAJI SATORU
WO2020181789A1	TEST SYSTEM FOR MICROWAVE DIELECTRIC CHANGES OF SOLID MATERIAL DURING FORCE BEARING PROCESS	2020	UNIV CENTRAL SOUTH; UNIV NORTHEASTERN [CN]; + WU LIXIN; MAO WENFEI; QI YUAN
US2008252314A1	APPARATUS FOR TESTING SYSTEM IN PACKAGE DEVICES	2008	SEMICONDUCTOR TESTING ADVANCED [US]
GB124359A	ELECTRICAL TESTING DEVICES	1919	BIERBOWER RICHARD CAREY [US]
WO0194954A1	TEST PEN	2001	REBEHY EDDIE
CN1308695C	TEST CIRCUIT AND TEST METHOD FOR EARTH RESISTANCE	2004	SHENZHEN KANGPUDUN ELECTRONIC [CN]

(European Patent office, s.f.)

1.Taulan txertatu diren patenteetatik proiekturako garrantzi handiena hartu dutenak test ezberdinak aurrera eramateko erabiltzen diren metodo eta zirkuitoak azaltzen dituztenak izan dira.

7. PROIEKTUAREN GARAPENA

Bezeroak Spot Cleaner Xurgatzailea diseinatu du. Helburua, fabrikatuko dituzten xurgatzaileen froga elektrikoak burutuko dituen makina bat diseinatzea da. Hona emen, egiaztatua izango den aparatuen diseinua:



Ilustrazioa 3 - Spot Cleaner

Europar saltzeko fabrikatua izan ezker 230 V- tan lan egingo du, aldiz, Ameriketako Estatu Batuetan saltzeko fabrikatua izan ezker 120 V –tan lan egingo du.



Ilustrazioa 4 - Spot Cleaner Alimentazioa

Hauek dira bezeroak kontrol postuan egin nahi dituen proben nondik norakoak:

Taula 3 - Proben nondik norakoak

PROBA	BERIFIKAZIOA	EZAUGARRIAK	MODIFIKATU AHALKO DIREN PARAMETROAK
Lurraren erresistentzia testa	a) Pletina de konexion eta bloke kalefaktorea batzen dituen kablearen kontinuitatea baieztatuko da. $R < 0,1$ Ohm. b) Pletina de konexion eta entxufearen lur konexioaren arteko kontinuitatea baieztatuko da. Mugak montatuko den kableak ezarriko ditu	Neurgailuak hutsean 12 voltetik gorakoa ez den tentsio alternoa izan behar du, (6,5V, gure kasuan), eta gutxienez, aparatuaren intentsitate nominala baino 1,5 aldiz txikiagoa ez den korrante bat (10A, gutxienez).	Erresistentzia limitea eta proba denbora (5 segundo) aldatu ahal izango dira
Zurruntasun dielektrikoaren testa	1500V-ko tentsio alternoa segundo batez aplikatzen da L eta N terminalen eta Spot Cleanerraren artean. Ihes-korronteak ezin ditu 5 mA gainditu eta ezin da kontorneorik ez zulaketarik agertu.		Ihes korrante maximoa eta proba denbora (1 segundo) aldatu ahal izango dira
Potentzia proba	Potentziak karakteristiken plakan zehaztutako potentzia nominalaren +%5eko eta -%10eko balioa duela egiaztatzen da		+%5 eta -%10eko limiteak eta proba denbora (5 segundo) aldatu ahal izango dira
Huts presio 6Ytesta	Ur-andelean ihesik dagoen egiaztatzen da.		+%5 eta -%10eko limiteak eta proba denbora (5 segundo) aldatu ahal izango dira

Proba hauek egingo dituen makinaren diseinua 4 arlo bereizgarrietan banatu da, atal elektriko eta elektronikoa, atal mekanikoa, atal pneumatikoa eta programazio atala.

7.1. ATAL ELEKTRIKO / ELEKTRONIKOA

Proiektuan elementu elektriko eta elektroniko ugari erabili dira.

Elementu elektriko eta elektroniko gehienak koadro elektrikoetan aurkitzen dira. Armairu elektrikoak, koadro elektrikoak edo panel elektrikoak ere esaten zaiona, sistema edo instalazio batean energia elektrikoaren hornidura banatu, babestu eta kontrolatzeko erabiltzen diren osagai elektrikoak eta kontrol-ekipoak dituen egitura edo kabinete bat da. Betetzen dituen funtzioak:

- Banaketa elektrikoak: Armairu elektrikoak, energia elektrikoak, instalazioaren barruko hainbat eremutara, zirkuitu edo ekipamendutara modu seguru eta eraginkorrean banatzeko behar diren gailuak eta osagaiak biltzen ditu. Besteak beste, etengailuak, fusibleak, erreleak, kontaktoreak, banaketa-transformadoreak eta barra kolektoreak izan daitezke.
- Zirkuituak eta ekipoak babestea: Armairu elektrikoak babes-gailuak ditu, hala nola, disjuntoreak edo etengailu automatikoak, fusibleak eta gaintentsioen aurkako babes-gailuak, zirkuituak eta ekipoak gainkargen, zirkuitu-etengailuen eta funtzionamendu-baldintza anormalen aurka babesteko.
- Kontrola eta automatizazioa: Armairu elektrikoak kontrol- eta automatizazio-ekipoak izan ditzake, hala nola kontrolagailu logiko programagarriak (PLCak), abiadura-kontrolagailuak, ukipen-kontrolako panelak (HMI), kontrol-erreleak, besteak beste. Gailu horiei esker, ekipo eta prozesu elektrikoaren funtzionamendua modu eraginkor eta seguruan gainbegiratu eta kontrola daiteke.
- Neurketa eta monitorizazioa: Armairu elektrikoak neurketa-tresnak izan ditzake, hala nola, energia-neurgailuak, amperometroak, voltmetroak eta beste sentzore batzuk, funtsezko parametro elektrikoaren neurketak eta monitorizazioa egiteko, hala nola energia-kontsumoa, korronea, tentsioa eta potentzia-faktorea.
- Konexioak eta kableak: Armairu elektrikoak egitura antolatua eskaintzen du osagaien eta ekipoen arteko konexio elektrikoak egiteko. Kableak, konexio-terminalak, borneak eta beste kable-elementu batzuk barne hartzen ditu.
- Segurtasuna: Armairu elektrikoak osagai eta ekipo elektrikoak babes fisikoa emateaz ere arduratzen da, baimenik gabe sartzeko edo zati energizatuekin ustekabeko kontaktua izatea saihestuz. Hori lortzeko, giltzaz itxitako ateak, panel isolatzaileak eta etiketatze egokia erabiltzen dira.



Ilustrazioa 5 - Koadro elektrikoa

Zirkuitu babesle moduan ebakigailu bat erabili da, 3P 25A etengailu ebakitzaila sistema elektrikoetan eskuz zirkuitu elektrikoa ireki eta ixteko erabiltzen den gailua da. Hiru polo (3P) eta 25 Ampèreko korrante nominal bat (25A) ditu. Etengailu ebakitzaila zirkuitu edo ekipo elektrikoaren deskonexio segurua egiteko erabiltzen da batez ere, mantentze- edo konponketan egiteko edo larrialdi batean segurtasuna bermatzeko.

Eskuz jarduten da palanka edo kirtenaren bidez. Palanka "OFF" posiziora mugitzean (deskonektatuta) korrante-fluxua eteten da, eta "ON" posiziora mugitzean (konektatuta) korrante-fluxua berrezartzen da.



Ilustrazioa 6 - Etengailu ebakitzaila

Etengailu diferenzial bat ere erabili da, diferenzial bat, etengailu diferenzial edo lurrerako ihes-etengailu gisa ere ezagutzen dena, lurrerako ihes bat berehala detektatzeko eta deskonektatzeko erabiltzen den babes elektrikoko gailua da. Bere eginkizun nagusia pertsonen segurtasuna bermatzea eta istripu elektrikoak prebenitzea da, hala nola, deskarga elektrikoak.

Diferenzialak etengabe monitorizatzen du zirkuitu elektrikotik sartzen eta irteten den korronea. Normalean, zirkuituan sartzen den korrone-kantitatea zirkuitutik ateratzen den korrone-kantitatearen berdina da, eta horrek adierazten du ez dagoela lurrerako ihesik. Hala ere, akats edo isolamendu akastun baten ondorioz lurrerantz korrone-ihesa badago, diferenzialak korrone-diferentzia hori detektatuko du eta berehala deskonektatuko du zirkuitua, elektrizitate-fluxua etenez.

Diferenzialak elementu nagusi hauek ditu:

- Transformadore diferenziala: Zirkuituko sarrera-korronearen eta irteera-korronearen arteko korrone-aldea detektatzen du.
- Etengailua: Korronearen lurrerako ihesa detektatzen denean irekitzen den etengailu automatiko gisa jokatzen du.
- Sentsibilitatea: Diferenzialak sentsibilitate espezifiko bat du, milianpereotan (mA) adierazten dena, eta etengailu diferenziala aktibatzeke beharrezkoa den korrone-ihesaren gutxieneko kopurua zehazten du.

Garrantzitsua da nabarmentzea diferenzialak babes-gailu osagarriak direla eta ez dituztela ordezkatzen zirkuituko etengailuak edo fusibleak. Bere funtzioa lurrerako ihes-korroneak detektatzea eta arrisku elektrikoaren aurkako babes gehigarria ematea da. Beraz, diferenzialak erabiltzea gomendatzen da, babes elektrikoko beste gailu batzuekin batera, sistema elektriko segurua eta fidagarria bermatzeko.



Ilustrazioa 7 - Diferenziala

Adierazi bezala, diferentzialekin konbergentzian babes eraginkorra emateko, etengailu automatikoak erabiltzen dira. Magnetotermikoa, etengailu automatiko termomagnetiko edo disjuntore termomagnetiko gisa ere ezagutzen dena, zirkuituak gaitzaren eta zirkuitu laburren aurka babesteko instalazio elektrikoetan erabiltzen den babes-gailu bat da.

Magnetotermikoak bi babes-mekanismo konbinatzen ditu bakar batean:

Babes termikoa: Magnetotermikoak bimetal bat erabiltzen du, dilatazio termikoko koefiziente desberdinak dituen bi metaleko xafla bat, gaitzarga luze batek eragindako gehiegizko berotzea detektatzeko. Korranteak magnetotermikoaren balio nominala denbora luzez gaitzitzen duenean, bimetala berotu eta tolestu egiten da, zirkuitua ireki eta korrante-fluxua geldiarazten duen desarra-mekanismo bati eraginez.

Babes magnetikoa: Babes termikoz gain, magnetotermikoak mekanismo elektromagnetiko bat ere erabiltzen du zirkuitu laburren aurrean azkar detektatzeko eta jarduteko. Mekanismo magnetikoa zirkuitu laburreko korranteak detektatzen ditu, oso korrante altuak eta iraupen laburrekoak, eta etengailuaren berehalako tiroa aktibatzen du zirkuitua eteteke eta kalteetatik babesteko.

Magnetotermikoen ezaugarri eta zehaztapen tipiko batzuk honako hauek dira:

Korrante nominala: magnetotermikoak tiro egin gabe modu seguruan maneiatu dezakeen korrante maximoa adierazten du. Korrante hori zirkuituaren edukieraren eta zirkuitura konektatutako gailuen arabera aukeratzen da.

Etete-ahalmena: magnetotermikoak zirkuitu laburraren kasuan modu seguruan eten dezakeen gehieneko korranteari dagokio. Garrantzitsua da magnetotermikoaren etete-ahalmena sistema elektrikoaren zirkuitu labur-ahalmenaren berdina edo handiagoa izatea.

Desarra-kurba: magnetotermikoei desarra-kurba desberdinak izan ditzakete, hala nola B kurba, C kurba edo D kurba, eta horiek zehazten dute desarra-denbora eta sentikortasuna, faila-korrantearen arabera.

Polo-kopurua: Magnetotermikoak poloen konfigurazio desberdinetan daude eskuragarri, hala nola polo bakar (1P), bipolar (2P), tripolar (3P) edo tetrapolar (4P), aplikazioaren eta sistema elektrikoaren eskakizunen arabera.



Ilustrazioa 8 - Magnetotermikoa

Armairuan aurkitzen den beste aparatu bat kontaktorea da, kontaktorea potentzia-zirkuituetan korrante elektrikoa kontrolatzeko eta konmutatzeko erabiltzen den gailu elektromekanikoa da. Bere funtzio nagusia karga elektriko batean korrante-fluxua ezartzea edo etetea da, besteak beste, motor, argiztapen edo ekipo elektriko batean.

Kontaktorea hainbat osagaik osatzen dute, besteak beste:

- Kontrol-bobina: Kontaktorearen zati elektromagnetikoa da. Bobinari korrante bat aplikatzean, kontaktu mugikorren multzo bat erakartzen duen eremu magnetiko bat sortzen da.
- Kontaktu nagusiak: kontaktorearen kontaktu elektrikoak dira, kontrol-bobina aktibatzen edo desaktibatzen denean irekitzen edo ixten direnak. Kontaktu nagusiak korrante altuak eta tentsioak jasateko diseinatuta daude, korrante elektrikoa kargarantz igarotzea ahalbidetuz edo beharrezkoa denean hura geldiaraziz.
- Kontaktu osagarriak: Kontaktore batzuek kontaktu osagarriak ere badituzte, seinalezatzeko, kontrolatzeko edo sistema elektriko beste gailu batzuekiko interkonexiorako erabiltzen direnak.

Aplikazio honetan, kontaktoreen bitartez proben kontrola gestionatuko da.



Ilustrazioa 9 - Kontaktorea

Banaketa elektrikoaren atalean kokatzen den eta armairua nagusian aurkitzen den beste elementu bat banaketa transformadorea da, transformadorea zirkuitu batetik bestera indukzio elektromagnetikoaren bidez energia elektrikoa transferitzeko erabiltzen den gailu elektrikoa da. Bere funtzio nagusia energia elektrikoko iturri baten tentsio- eta korrante-mailak hainbat aplikaziotan erabiltzeko maila egokietara aldatzea da.

Transformadoreak elektrikoki harilkatuak deituriko alanbrezko bi bobina edo gehiagok osatzen dituzte, eta horiek burdin nukleo baten inguruan biribilkatuta daude. Harilkatuei harilkatu primarioa eta harilkatu sekundarioa esaten zaie.

Lehen mailako harilketa energia elektrikoaren iturriari edo sarrerako zirkuituari konektatuta dago, eta bigarren mailako harilkatzeak, berriz, energia elektrikoa irteera-zirkuituari edo kargari hornitzen dio. Lehen mailako harilkatzean dagoen espira-kopuruaren eta bigarren mailako harilkatzearen arteko erlazioak tentsio- eta korrante-mailak nola eraldatzen diren zehazten du.

Harilketa primarioan korrante alfernoa aplikatzen denean, eremu magnetiko bat sortzen da burdinazko nukleoan. Eremu magnetiko honek korrante bat induzitzen du bigarren mailako harilkatzean indukzio elektromagnetikoaren Faradayren legearen bidez. Primarioaren eta sekundarioaren tentsioen arteko erlazioa harilkatuen espira-erlazioak zehazten du.

Transformadoreak asko erabiltzen dira energia elektrikoa sortzeko, transmititzeko eta banatzeko sistemetan, bai eta industria- eta merkataritza-aplikazio askotan ere. Transformadoreen funtsezko abantaila batzuk honako hauek dira:

- Zirkuituen eta kargen beharren arabera tentsioa eta korrantea handitzea edo gutxitzea.
- Sarrera- eta irteera-zirkuituen arteko isolamendu elektrikoa, deskarga elektrikoaren eta zarataren aurkako babesa emanez
- Eraginkortasun energetikoa, transformadoreek gutxienezko galerak baitituzte energia-transferentzian.
- Hainbat aplikazio eta karga-betekizunetara egokitzeko gaitasuna.

Lurraren erresistentzia testa egiteko, energia elektrikoko iturria 6,5V-etara egokitu behar da eta zurruntasun dielektrikoaren testa egiteko energia elektrikoko iturria 1500V-etara egokitu behar da.



Ilustrazioa 10 - Transformadorea

Makinak probak egitean, aztertu beharreko xurgatzailearen korrante-balioak neurtu behar ditu, horretarako, korrante-transformadoreek erabiltzen dira.

Korrante-transformadore bat, tresna-transformadore edo korrante-transformadore (TC) ere esaten zaiona, intentsitate handiko korranteak modu seguru eta zehatzean neurtzeko erabiltzen den gailu bat da. Funtzio nagusia magnitude handiko korrante primario bat bigarren mailako korrante baxuago eta proportzionalago bihurtzea da, neurketarako edo babeserako egokia.

Korrante-transformadoreak nukleo magnetiko bat eta nukleoaren inguruan bildutako kobrezko alanbrea ditu. Korrante primarioa, neurtu nahi den magnitude handiko korrantea, nukleo magnetikotik igarotzen da eta eremu magnetiko proportzionala sortzen du. Nukleoaren inguruan biribilkatutako kobrezko alanbrea transformadorearen bigarren mailako irteerara konektatzen da, non korrante sekundarioa murriztua eta korrante primarioarekiko proportzionala lortzen den.

Korrante-transformadorearen transformazio-erlazioaren balioa diseinuan eta eraikuntzan ezartzen da. Erlazio horrek korrante primarioaren eta korrante sekundarioaren arteko erlazioa definitzen du. Adibidez, 100: 5eko transformazio-erlazioa duen korrante-transformadore batek 100 ampereko korrante primario bat 5 ampereko korrante sekundario bihurtuko du.

Korrante-transformadoreak aplikazio sorta zabal batean erabiltzen dira, energia banatzeko sistemetan, zirkuituak babesteko sistemetan, energia neurtzeko sistemetan edota energiaren kalitatea monitorizatzeko ekipotan, besteak beste. Funtsezkoak dira sistema elektrikoetan korrantearen neurketa zehatzak lortzeko, eta ekipo elektrikoaren eragiketa segurua eta fidagarria ahalbidetzen dute. (CIRCUTOR, s.f.)



Ilustrazioa 11 - Korrante transformadorea

Behin korrante-seinalea hartu eta balio proportzional baxuagotara eraldatuta, seinalea korrante-transduttore batetik igarotzen da.

Korrante-transduttorea edo korrante-sentsorea zirkuitu batean korrante elektrikoa neurtzeko eta irteera-seinale proportzionala bihurtzeko erabiltzen den gailua da. Bere funtzio nagusia korrante elektrikoa detektatzea eta seinale elektriko edo analogiko bihurtzea da, korrantea sistema elektriko batean monitorizatzeko, kontrolatzeko edo erregistratzeko erabil daiteke.

Korrante-transduttoreak indukzio elektromagnetikoaren printzipioan oinarritzen dira. Gailu horiek nukleo magnetiko bat eta nukleoaren inguruan biribilkatutako bobina bat dituzte. Neurtu beharreko korrante elektrikoa bobinatik igarotzen da, eta horrek korrantearekiko eremu magnetiko proportzionala sortzen du. Eremu magnetikoko aldaketak korrante bat eragiten du bobina sekundarioan, hau da, transduttorearen irteera-seinalea.

Korrante-transduttorearen irteera-seinalea korrante-forman (4-20 mA) edo tentsio-forman (0-10 V) izan daiteke. Irteera-seinalea aukeratzea transduttorea erabiltzen den sistemaren beharren eta eskakizunen arabera da.

Korrante-transduttoreak asko erabiltzen dira hainbat aplikaziotan, hala nola, prozesu industrialak kontrolatzeko sistemetan, energia banatzeko sistemetan, energiaren kalitatea monitorizatzeko sistemetan, zirkuituak babesteko sistemetan eta beste askotan. Funtsezkoak dira korrante elektrikoa zehaztasunez eta segurtasunez neurtzeko hainbat sistema elektrikotan.

Garrantzitsua da aipatzea korrante-transduttoreak behar bezala hautatu behar direla, korrante nominalaren, neurketa-tartearen, zehaztasunaren, maiztasunaren, kargaren eta erabiliko diren sistemaren beste parametro espezifiko batzuen arabera (AMPER PLUS)



Ilustrazioa 12 - Korrante transduttorea

Korrontez aparte, tentsioa ere irakurri beharra dago, horretarako, seinalea tentsio-isolagailuekin egokitzen da. Tentsio-isolagailua sistema elektriko batean zirkuituen edo osagaien artean isolamendu elektrikoa emateko erabiltzen den gailua da. Bere funtzio nagusia zirkuitu horien artean nahi ez den korronte- edo tentsio-transferentzia prebenitzea da, eta horrek sistemaren segurtasuna eta funtzionamendu egokia bermatzen laguntzen du.

Tentsio-isolagailuak tentsio altuak jasateko eta hesi dielektriko eraginkor bat eskaintzeko diseinatuta daude, korronte elektrikoaren zirkulazioa saihesteko. Gailu horiek aplikazio askotan erabiltzen dira, energia banatzeko sistemak, kontrol industrialeko sistemak, automatizazio-sistemak, ekipo elektronikoak eta gehiago barne.

Tentsio-isolagailu bat aplikazio elektrikoetan erabiltzen da hainbat funtzio garrantzitsu betetzeko:

- **Isolamendu elektrikoa:** Tentsio-isolagailua tentsio-maila desberdinetan jarduten duten zirkuituen edo osagai elektrikoaren artean hesi dielektriko bat sortzeko erabiltzen da. Horrela, ekipo sentikorrek kalteku edo pertsonentzat arriskua eragin dezaketen korronte- edo tentsio-transferentziak saihesten dira.
- **Segurtasun pertsonala:** Tentsio-isolagailuak erabiltzeak pertsonak deskarga elektrikoetatik babesten laguntzen du, tentsio handiko osagaien eta eraginpean daudenen edo erabiltzailearentzat irisgarriak direnen arteko bereizketa segurua sortzen baitu. Horrek elektrokuzio-arriskua eta beste istripu elektriko batzuk murrizten ditu.
- **Ekipoen babesa:** Tentsio-isolatzaileek ekipo eta gailu sentikorrek gaintentsioek edo tentsio-puntek eragindako kalteetatik babesten laguntzen dute. Isolamendu-hesi bat ematen dutenez, tentsio-gorabeherak sistemaren bitartez hedatzea eta gailu sentikorreire eragitea saihesten dute.
- **Zarataren eta interferentziaren kontrola:** Tentsio-isolatzaileek zarata elektrikoa eta interferentzia elektromagnetikoak murrizten laguntzen dute, sistema elektriko baten zati desberdinen artean nahi ez diren seinaleen transferentzia mugatzen baitute. Hori bereziki garrantzitsua da aplikazio sentikorretan, hala nola komunikazio-sistemetan edo seinale ahulak neurtzeko ekipoetan.



Ilustrazioa 13 - Tentsio isolatzailea

Xurgatzaileen hutseko presioa irakurtzeko, presio-sentsore bat erabiltzen da. Presio-sentsore bat sistema bateko fluido edo gas baten presioa neurtzeko erabiltzen den gailu bat da. Sentsore horiek asko erabiltzen dira aplikazio industrial, autopropultsatu eta prozesuak kontrolatzeko aplikazio askotan, besteak beste.

Presio-sentsore baten oinarritzko funtzionamendua elementu sentikor baten deformazioan oinarritzen da, haren gainean presio bat aplikatzen denean. Elementu sentikor hori mintz bat, diafragma bat edo Bourdon hodi bat izan daiteke, besteak beste. Elementu sentikorraren deformazioak aplikatutako presioarekiko proportzionala den seinale elektriko bat sortzen du, ondoren, konektatuta dagoen sistemak edo ekipoa erabiltzen duen presio-neurri bihurtzen da.



Ilustrazioa 14 - Presio sentsorea

Irakurketa horiek egin ahal izateko, aurretik eragingailuek jardun beharko dute, eragingailuen kokapena ezagutzeko, zilindro pneumatikoen kasuan, zilindroaren egoera solidoaren detektagailuak erabiltzen dira. Egoera solidoaren detektagailu espezifiko bat da, zilindro pneumatiko edo hidrauliko batek aplikazio automatizatu batean duen posizioa detektatzeko erabiltzen dena.

Sentsore hauek zilindroan pistoiaren mugimendu lineala detektatzeko diseinatuta daude, irteera-seinale bat emateko pistoia posizio espezifiko batera, posizio luzatura edo uzkurtura, iristen denean. Erabilgarria da zilindroaren mugimendua monitorizatu eta kontrolatu behar den aplikazioetan.

Sentsore hauek, oro har, irteera digital bat eskaintzen dute, pizteko edo itzaltzeko seinale bat (ON/OFF) edo egoera altu edo baxuko seinale bat. Zilindroaren posizioa hautematean, beste osagai batzuk aktibatzeko edo sistema automatizatuaren barruan ekintza espezifikoak egiteko erabiltzen da.



Ilustrazioa 15 - Zilindro detektagailua

Aurretik definitutako elementu batzuk eta proiektuan erabiltzen diren beste batzuk 24 V-tan lan egiten dutenez, elikatze-iturri bat dago. 24 V-ko elikatze-iturri bat 24 voltoko tentsioa behar duten ekipo edo sistemei energia elektrikoa ematen dien gailu bat da. Elikatze-iturri horiek askotariko aplikazioetan erabiltzen dira, potentzia txikiko sistema elektronikoetatik industria sistema handiagotara.

24 V-ko elikatze-iturriak hainbat motatakoak izan daitezke, hala nola:

